Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritza
Autoridad Territorial del Transporte de Gipuzkoa

2027KO AURREKONTUAREN AZALPEN MEMORIA

1. AURREKARIAK

Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritza Partzuergoa (aurrerantzean, Partzuergoa) zuzenbide publikoko erakunde bat da, nortasun juridiko propioa duena, osatzen duten administrazio publikoetatik bereizia; era berean, jarduteko gaitasun osoa du guztien interes komuneko jarduerak garatzeko, bere eskumenen esparruaren barruan.

Hori horrela den heinean, Partzuergoak sustapen jarduerak egiten ditu, bai eta prestazioetara bideratuak edo zerbitzu publikoen kudeaketa erkidekoak ere.

Partzuergoaren antolaketa, funtzionamendua eta araubide juridikoa bat datoz Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legean, hura garatzeko araudi autonomikoan eta haren estatutuetan aurreikusitakoarekin.

Hauek dira Partzuergoaren eginkizun nagusiak:

a) Garraio zerbitzuen eta azpiegituren plangintza egitea:

- Gipuzkoako garraio zerbitzuak planifikatzen eta zerbitzu horiek koordinatuta ustiatzeko programak ezartzen laguntzea.
- Gipuzkoako garraio azpiegituren plangintzan laguntzea.
- Garraioaz besteko gai batzuetan eskumenak dituzten organismo eta erakundeekin koordinatzea, garraioaren arloan eragin dezaketen ekinbideak gauzatzen dituztenerako.
- Gipuzkoan garraioaren merkatu globalaren bilakaera aztertzeko behatoki bat ezartzea, eta, ildo horretan, arreta berezia eskaintzea garraio pribatuaren bilakaeraren jarraipenari.
- Garraio pribatua gutxiago erabiltzeko jarduketak proposatzea.
- Sektore turistikoak Gipuzkoako garraio publikoa erabil dezan sustatzea.

b) Tarifen antolamendua:

- Gipuzkoako tarifa sistema integratua definitzea, baita haren ezarpena, kudeaketa eta garapena ere.
- Tarifak finkatzea Gipuzkoako tarifak bateratzeko sisteman.
- Tarifen sistema integratutik lortzen diren diru sarrerak kudeatzea eta garraio enpresa operadoreen artean banatzea.
- Ikuskapen kanpaina orokorrak eta espezifikoak proposatzea eta/edo egitea.
- Gipuzkoan garraio zerbitzu baten ardura duen administrazio bakoitzak finkaturiko tarifak koordinatzea.

c) Garraio adimenduneko sistemak koordinatzea eta garatzea.

- Gipuzkoako garraio publikoaren tarifak integratzeko sistemaren ordainketa moduak kudeatzea.
- Herritarrek kontakturik gabeko (*contactless*) MUGI txartela eskuratzeko bidea kudeatzea.

- Ordainketa sistemen bilakaera teknologikoa eta digitala sustatzea eta garatzea.
- Gipuzkoako garraio publikoko ordainketa sistemak kudeatzea.
- Gipuzkoako garraio publikoko operadoreen ordainketa teknologiaren bilakaera koordinatuan laguntzea.
- Euskadiko garraio publikoaren elkarreragingarritasuna bultzatzea eta garatzea, Gipuzkoako tarifak integratzearen bidez.
- Garraio adimenduneko sistemen arloan aholkatzea.
- Bidaiariei informazioa emateko sistema aurreratuak sustatzea eta koordinatzea.

d) Komunikazioa, erabiltzaileentzako informazioa eta sistemaren ebaluazioa:

- Gipuzkoako garraio sistema integratuaren irudi korporatiboa ezartzea.
- Gipuzkoan garraio publikoaren sistemaren erabilera eta mugikortasun jasangarria sustatzeko komunikazio kanpainak egitea.
- Intermodalitatea eta etorkizuneko mugikortasuna sustatzea, eta, horretarako, Gipuzkoako garraio publikoaren informazioa eta ordaintzeko moduak digitalizatzea.
- Garraio erabiltzaileei informazioa ematea informazio sistema integratu baten bidez, egokitzat jotzen diren bitarteko guztien bidez.
- Partzuergoko erakundeek eta garraio enpresa operadoreek ematen duten informazioari buruz aholkatzea eta haien komunikazioa koordinatzea.
- Garraioaren ebaluazioa egitea eta, besteak beste, herritarren mugikortasunari buruzko inkestak egitea, herritarren parte hartzea bultzatzea eta interakzio digitala sustatzea.

e) Aholkularitza eta txostenak:

- Gipuzkoako toki erakundeei hiri antolamenduko plan orokorrak edo beste plangintza tresna batzuk egiteko aholkularitza ematea, garraioaren plangintzarekin duten koherentzia eta elkarrekiko egokitasuna aztertzeko.
- Partzuergoko erakundeei eta Gipuzkoako beste erakunde batzuei aholkularitza ematea garraioen enpresa eragileekin programa kontratuak edo bestelako hitzarmenak egiteari eta/edo hitzartzeari buruz.
- Partzuergoko erakundeei eta Gipuzkoako beste erakunde batzuei aholkularitza ematea, garraio zerbitzu publikoak ustiatzeko gaitzen duten tituluak emateko, aldatzeko eta azkentzeko espedienteei buruz.
- Partzuergoko erakundeei eta Gipuzkoako beste erakunde batzuei aholkularitza ematea Gipuzkoako garraio enpresa operadoreen programa kontratuen, hitzarmenen, emakiden eta kudeaketa kontratuen jarraipena egiteari loturik.
- Partzuergoko erakundeei eta Gipuzkoako beste erakunde batzuei aholkularitza ematea administrazioekin, garraioko zerbitzu publikoen enpresa eragileekin edo garraioaren arloan garrantzi berezia duten beste erakunde batzuekin egindako proposamenei eta lankidetza akordioei buruz.
- Gipuzkoako Lurralde Historikoko garraioaren egoerari buruzko urteko txostena egitea.

f) Administrazioek garraio publikoaren sistema finantzatzea:

- Garraio publikoaren sistema finantzatzeko modu berrien inguruko proposamenak egitea Gipuzkoan garraioa finantzatzeko ardura duten administrazio publikoei.

Horretaz gainera, eta guztiz garatu ondoren, Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritza Partzuergoak eginkizun hauek bete ahal izango ditu, besteak beste:

a) Garraio zerbitzuen eta azpiegituren plangintza egitea:

- Gipuzkoako garraio zerbitzuak planifikatzea eta zerbitzu horiek koordinatuta ustiatzeko programak ezartzea.
- Garraio pribatua gutxiago erabiltzeko jarduketak ezartzea.
- Garraioaz besteko gai batzuetan eskumenak dituzten organismo eta erakundeekin koordinatzea, garraioaren arloan eragin dezaketen ekinbideak gauzatzen dituztenerako.

b) Garraioen enpresa operadoreekiko harremanak:

- Gipuzkoako garraio zerbitzu publikoen enpresa operadoreekin programa kontratuak edo bestelako hitzarmenak egitea eta/edo hitzartzea.
- Gipuzkoako garraio lineen emakida berrien baldintzak egitea eta/edo emakida horiek gauzatzea.
- Gipuzkoako garraio operadoreen programa kontratuen, hitzarmenen, emakiden eta kudeaketa kontratuen jarraipena egitea.

c) Tarifen antolamendua:

- Tarifen gaineko ahalmenak erabiltzea, hala nola tributuekin, prezio publikoekin edo prezio pribatuekin lotutakoak.

d) Kontsultak:

- Garraio zerbitzuen eta azpiegituren antolamenduaren arloan Gipuzkoako eremuan kontsulta organoaren eginkizunak betetzea, edozein lege eta erregelamendu xedapenetan edo partzuergoko erakundeekin edo beste erakunde publiko batzuekin sinatzen dituen hitzarmenetan esleitzen zaizkion eginkizunekin.

e) Garraio zerbitzuak kudeatzea:

- Gipuzkoako Lurralde Historikoko garraio zerbitzuen eta azpiegituren esparruan, Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritza Partzuergoa osatzen duten erakundeen eskumeneko era guztietako jarduerak kudeatzea.

f) Etorkizuneko arau esparrua:

- Partzuergoko erakundeei proposamenak egitea beren arau esparrua egokitzeari loturik, Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritza Partzuergoak erakunde horietan aurreikusitako eskuduntzak baliatu ahal izan ditzan, erakunde horien titulartasuneko eskumenen esparruan.
- Partzuergoko erakundeei proposamenak egitea beren arau esparrua egokitzeari buruz, Gipuzkoan garraio publiko kolektiboaren arloko araudia harmonizatzeko.

Ildo horretan, Partzuergoak tarifak bateratzeko sistema kudeatzen du —aurrerantzean, MUGI sistema—, zeina 2013ko martxoaren 4tik aurrera baitago martxan Gipuzkoako Lurralde Historikoan.

MUGI sistemak tarifa politika bakarra definitzen du Gipuzkoako hiri autobusen zerbitzuetan (Donostia, Irun, Errenteria, Eibar, Zarautz, Arrasate, Hernani, Lasarte-Oria, Oiartzun, Oñati, Tolosa, Hondarribia eta Andoain), hiriarteko autobusetan (Lurraldebus), eta EUSKOTREN-EUSKO TRENBIDEAK SAren zein RENFEren tren zerbitzuetan. Hori guztia tarifa sistema eta ordainketa euskarri bakarra erabiliz: MUGI txartela. Era berean, sistema horren bidez, posible da MUGI txartela erabiltzea Gasteizko eta Bilboko tranbiak, Larreinetako funikularra, Bilboko Metroa eta Tuvisa eta Alavabuseko autobusak ordaintzeko. 2026an, martxan jarri dira orobat Bizkaiko bus zerbitzuetan MUGI erabiltzeko interoperabilitateak, baita Lurraldebuseko lineetan BAT eta BARIK erabiltzekoa ere. Hori horrela, Euskadiko lurraldearen interoperabilitate osoaren parte handi bat osatu da.

Partzuergoak, orobat, bere estatutuetan eta hurrengo ekintza planetan eta plan estrategikoetan aurreikusitako eginkizunak betez, zenbait eremutako koordinazio proiektuak garatzen ditu, Partzuergoa osatzen duten erakundeekin batera. Besteak beste, hauek biltzen ditu: garraio publikoari buruzko araudia; MUGIren garapena eta ezarpena lurralde osoan; tarifikazio integratuko sistemen bilakaera; garraio publikoaren plangintza integratua; BAT, BARIK eta MUGI txartelen elkarreragingarritasuna EAEn; elkarreragingarritasuna Ipar Euskal Herriko eta Aturriko Mugikortasunen sindikatuarekin; irisgarritasun unibertsala; komunikazioa eta herritarrentzako informazioa; desgaitasuna duten pertsonen beharrei erantzutea; mugikortasun turistikoa hobetzea; genero-ikuspegia garraioan txertatzea; eta adimen artifizialean oinarritutako baliabideak ezartzea.

2. 2027KO AURREKONTUAREN ILDO NAGUSIAK

2.1 GASTUEN EGOERA

2.1.1 1. KAPITULUA: LANGILEEN GASTUAK

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 16. artikuluarekin bat etorriz, Partzuergoaren Batzar Nagusiak langileen plantilla, lanpostuen zerrenda, ordainsariak eta 2012ko enplegu publikoaren eskaintza onetsi zituen 2012ko martxoaren 26an eginiko ohiko bilkuran.

2013ko ekitaldian lanpostuen zerrendan aurreikusitako sei lanpostuetatik bost hornitu dira.

2016ko apirilaren 1ean, Batzar Nagusiak erabaki zuen Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzako langileen plantilla eta lanpostuen zerrenda aldatzea, bi plaza amortizatzeko eta beste bi sortzeko.

Batzar Nagusiak erabaki du lanpostuetako bat barne sustapenaren bidez betetzea. Prozesua 2016ko azaroaren 23an amaitu zen.

2019ko martxoaren 11n, kudeaketa orokorreko teknikari lanpostua bete zen. Hori horrela, beteta daude lanpostuen zerrendan aurreikusitako sei lanpostuak.

2022an lanpostuetako bi bete gabe gelditu ziren: batetik, kudeaketa orokorreko erdi mailako teknikariarena, beste administrazio batean zerbitzu eginkizunetan, eta, bestetik, plangintza teknikariaren lanpostua, beste administrazio batean zerbitzu eginkizunetan. Azkenean, epe luze baten ondoren, 2024ko azaroan bete ziren bi lanpostuok.

2024ko azken bi hilabeteetan, kudeaketa orokorreko erdi mailako teknikari lanpostua eta bitarteko plangintzako teknikari lanpostua bete ziren.

Gaur egun, beteta daude lanpostu zerrendan deskribatutako lanpostu guztiak.

Soldata araubideari dagokionez, banaketa egiten da lan eta estatutu araubideen artean (oinarria eta osagarriak).

Partzuergoko langileen ordainsariak Batzar Nagusiak zehaztuko ditu, Estatuko Aurrekontuen Lege Orokorraren eta aplikatu beharreko gainerako araudiaren edukiaren arabera.

Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legea indarrean jartzeak ezarri zuen partzuergoetako langileen araubide berria, eta xedatzen du langile horiek, oro har, partzuergoko erakundeetatik datozela; horrekin batera, jasotzen du Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzako langileen ordainsariek ez dituztela inola ere gainditu adskripzio administrazioaren baliokide diren lanpostuetarako ezarritakoak.

2024ko ekainaren 28ko batzarrean, Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzak lanpostuen zerrenda eta balorazioa eguneratzea onartu zuen, bere estatutuen 34.2 artikuluko eskakizun berriak jasotzeko, zeinak 40/2015 Legera egokitzeko aldatu baitziren.

Era berean, eta enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko neurri urgenteei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legea betez, 2024an amaitu zen ukitutako bi lanpostuen oposizio oposizio eta lehiaketa prozesua, goi mailako teknikari ekonomialariarena eta administrariarena, hurrenez hurren.

Azalpen memoria honi erantsi zaizkio langileen plantilla eta indarrean dagoen lanpostuen zerrenda, aurrekontu honetan jasotakoa.

2.1.2 2. KAPITULUA: GASTU ARRUNTAK

Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzaren gastu korronteak bi programa nagusiren barruan sartzen dira: 920 programa, Partzuergoaren beraren funtzionamenduari buruzko gastuekin, eta 440 programa, herritarrei zuzendutako zerbitzuen hornidurari buruzko gastuekin, batez ere MUGI txartelaren bidez.

Jarraian, 2027ko aurrekontuak xede dituen partida eta helburu nagusiak banakatuko dira:

2.1.2.1 (b funtzioa) Tarifen antolamendua: MUGI sistema kudeatzea

Partzuergoaren ohiko funtzionamenduari dagozkion gastu finkoak, MUGI tarifa integrazioaren kudeaketari dagozkionak eta haren tresna nagusiaren kudeaketa (MUGI txartela) Gipuzkoako tarifa integrazioaren ezarpenetik esleitutako lau kontratu nagusitan biltzen dira, zeinak aldian-aldian lizitatzen eta berritzen baitira, jarraitutasunerako eta etengabe hobetzeko espirituarekin.

Lizitatutako zerbitzuetan hobekuntzak sartu dira, baita zerbitzuan gehituz joan diren bilakaera progresiboetan ere, ezinbestekoak baitira *ticketing* sektorean sistema eguneratua, berritua, mantendua eta sekurizatua mantentzeko, kontuan izanik bilakaera oso azkarra eta etengabea dela.

Gastu horiek 2027rako aurrekontu osoaren % 60 inguru dira.

2013an tarifak bateratu zirenetik, pixkanaka eta etengabe handitu dira gastu horiek, sistemaren erabiltzaileak ugaritu izanaren ondorioz.

Urteen joanarekin, pixkanakako igoera horrek bi eragin garrantzitsu izan ditu:

- 2020ko pandemiak erabiltzaileen murrizketa handia ekarri zuen; alabaina, pixkanaka suspertzen joan da, eta gainditu egin ditu 2019ko pandemia aurreko zifrak.
- 2022ko irailean, Gobernu Zentralaren Errege Lege-dekretuaren bidez, garraio publikoaren erabiltzaileentzako aparteko deskontuen proposamena txertatu zen.

2022ko irailean, Ukrainako gerraren ondorio ekonomiko eta sozialei erantzuteko, kalteberatasun sozial eta ekonomikoko egoerei aurre egiteko eta La Palma uhartearen susperraldi ekonomiko eta sozialari laguntzeko zenbait neurri hartzen eta luzatzen dituen ekainaren 25eko 11/2022 Errege Lege-dekretuak % 50era murriztu zituen MUGI tarifak.

Kargatzeko komisioak zuzenean proportzionalak dira tarifa horiekin, eta, beraz, 2022ko irailetik gaur egun arte, % 40ra murriztu dira. Horrek esan nahi du azkenean 2023an, 2024an, 2025ean eta 2026an izaniko gastu erreala aurrekontuan jasotakoa baino nabarmen txikiagoa izan dela.

Azpimarratu behar da, tarifen murrizketa zorrotz horren eta, beraz, kargen testuinguruan, kargen goranzko joera ez dela inoiz gelditu, etengabe egin baitu gora garraio publikoaren erabilerak.

Testuinguru horretan, gaur egun eskuragarri dagoen informazioarekin eta 2027ko aurrekontuari begira, tarifen % 40ko eta % 50eko murrizketa hori azkenean ezabatzea eta tarifak atzera 2022an ezarritakoak izatea aurreikusi da, eta kargatzeko komisioak, berriz, memoria hau idatzi den egunera arteko azken urteko kargen benetako joeran oinarrituta kalkulatzea.

2027rako, eta POCTEFA kofinantzaketarekin, beste kontratazio bat abiaraziko da TRANSFERMUGI mugaz gaindiko proiektu europarraren babesean, zeinaren helburua izango baita tarifak aztertzeko tresna bat garatzea, adimen artifizialeko tresnak aplikatuta.

Hauek dira gastu nagusiak:

a) MUGI txartelak erostea (pertsonalizatuak eta anonimoak).



- Salerosketa arrunta.

Kasu horretan, txartel pertsonalizatuen titularrek eta/edo txartel anonimoak erosten dituztenek ordaintzen dute txartelen kostua (gaur egun, 5 € balio dute, BEZa barne).

Horrek ez du esan nahi kostua aurrekontuan islatu behar ez denik; izan ere, Partzuergoak hartzen du bere gain aurrekontu gastua (txartelak eskuratzekoa), zeina, ondoren, aurrekontuko diru sarrera bihurtzen baita erabiltzaileek ordaintzen dutenean.

Beharrezko txartelen bolumenaren zenbatespena egiteko, 2013tik aurrerako datu historikoak behatu dira modu kontserbadorean. COVIDaren inpaktuaz geroztik, eskaerak poliki-poliki berroneratu dira, eta 2022ko ekaineko Errege Lege-dekretuak bizkortu egin zuen, tarifak % 50 jaistearen harira. Gaur egun, errekor absolutua ikusten da txartelen kudeaketan eta erosketan.

Gai horri dagokionez, kontuan hartu da berebat 2026an sartu dela MUGI sistemaren birtualizazioa, eta denborarekin txartel fisiko gutxiago merkaturatzea ekarriko duela. Trantsizio hori hasieran motela izatea espero da (2026), eta aurrerago areagotuko da.

Horiek hornitzeko, hornidura kontratu bat dago indarrean Calmell SA enpresarekin 2025eko uztailaren 16tik. 36 hilabeteko iraupena du kontratu horrek.

- Salerosketa berezia.

2014ko martxoaren 27an egindako ohiko Batzar Nagusiak aho batez erabaki zuen MUGI txartela partzuergoko erakundeei edo helburu sozialak dituzten eta irabazi asmorik ez duten erakunde interesdunei kostu prezioan saltzea.

b) Eskaerak kudeatzea:

BERALAN SL enpresari eskaerak kudeatzeko esleitutako kontratua 2023ko irailaren 19an hasi zen gauzatzen, eta 24 hilabete iraungo du —urtebeteko bi luzapen aldi izan ditzake—.
Eskaeren kudeaketak zeregin hauek biltzen ditu, besteak beste:

- Txartel pertsonalizatuen eskaeretan izaniko gorabeherak jasotzea, erregistratzea, kudeatzea eta ebaztea.
- Txartela eskatzeko formularioa biltegiratzea eta banatzea.
- Txartelak banatzea.
- Txartelak saltzea.

c) Kargatzeko komisioak:

MUGI sistemaren kudeaketaren gastu nagusia da.

2020an, pandemiaren inpaktuaren ondorioz, erabiltzaileak erabat murriztu ziren, baina pandemiaren inpaktua eta hark ekarritako bidaiari kopuruaren jaitsiera gainditu ondoren, nabarmena da atzera bidaiariak ugaritu egin direla. Horren ondorioz, 2023an erabat leheneratu da bidaiari kopurua, eta 2024an, 2025ean eta 2026an gainditu egin dira aurreko zifrak. 2027an ere mantendu egingo da goranzko joera hori, aurreikuspenen arabera. Horrek markak hautsi ditu txartelen eta erabiltzaileen kudeaketan eta salmentetan.

Gainera, 2022ko irailean —aurrez deskribatu dugun moduan—, Ukrainako gerraren ondorio ekonomiko eta sozialei erantzuteko, kalteberatasun sozial eta ekonomikoko egoerei aurre egiteko eta La Palma uhartearen susperraldi ekonomiko eta sozialari laguntzeko zenbait neurri hartzen eta luzatzen dituen ekainaren 25eko 11/2022 Errege Lege-dekretuak % 50era murriztu zituen MUGI tarifak.

Kargatzeko komisioak zuzenean proportzionalak dira tarifa horiekin, eta, beraz, 2022ko irailetik, 2023. urte osoan eta, azkenik, 2024an, 2025ean eta 2026an, % 40ra arte murriztu dira komisiook, nahiz eta murrizketa drastiko horren testuinguruan, kargen goranzko joera ez den inoiz gelditu, garraio publikoaren erabilera etengabe handitu izanaren ondorioz. Horrek esan nahi du azkenean 2023an, 2024an, 2025ean eta 2026an izaniko gastu erreala aurrekontuan jasotakoa baino nabarmen txikiagoa izan dela.

Testuinguru horretan, 2027ko aurrekontuari begira, tarifen % 40ko eta % 50eko murrizketa hori azkenean ezabatzea eta tarifak atzera 2022an ezarritakoak izatea aurreikusi da, eta kargatzeko komisioak, berriz, memoria hau idatzi den egunera arteko azken urteko birkargen benetako joeran oinarrituta kalkulatzea.

Era berean, sistema birtualizatuak ekarriko duen kargatzeko bide berri baten aurreikuspena ere sartu da aurrekontuan.

Gaur egun, hauek dira kargatzeko aukerak eta dagozkien komisioak:

- Salmenta eta karga puntuen sarea: BERALAN SL enpresari esleitutako kontratua 2023ko irailaren 19tik dago indarrean, eta 24 hilabete iraungo du —urtebeteko bi luzapen aldi izan ditzake—. Eskainitako komisioa % 2,25ekoa da.
- Banku kutxazainen sarea: kontratua KUTXABANK SA enpresari esleitu zaio 2025eko irailaren 10ean, 5 urterako. Lehen zatian % 1,89ko kargatzeko komisioa ezartzen du (3 milioi euroraino), % 0,90ekoa (hiru eta hamar milioi artean) eta hirugarren tartetik aurrera, berriz, % 0,60koa (10 milioitik aurrera).
- EUSKOTRENen makina sarea: Partzuergoak eta EUSKOTREN EUSKO TRENBIDEAK SAk 2023an sinatutako hitzarmenaren arabera, Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzak bere gain hartzen du, tarifa integrazioko txartelak kargatzeko komisio gisa, MUGI txartelen salmenten eta EUSKOTRENen karga makinetan MUGI txartela kargatzeagatik hilero kargatutako zenbateko guztien % 3 ordaintzea. Urteko gehieneko zenbatekoa 700.000 eurokoa da.
- WEBGUNEA (Eusko Jaurlaritzaren “Nire ordainketa” onlineko zerbitzuaren bidez). Partzuergoaren finantza erakunde laguntzaileen bidez egindako eragiketek gaur egun ez dute komisiorik sortzen: Kutxabank, EUSKADIKO Kutxa, BBVA eta Sabadell Guipuzcoano.
- RENFE Gipuzkoako Tarifa Integrazioan biltzeko hitzarmena, RENFEren makinetan egindako kargengatiko komisioei dagokienez. 2024ko ekainaren 28an onetsi eta sinatutako RENFE-GGLA integrazio hitzarmenean ezarritakoaren arabera, RENFEren autosalmenta makinetan kargatzeko eta saltzeko komisioak % 3 + BEZa dira, urtean gehienez 700.000 euroko zenbatekoarekin.
- 2027ko aurrekontuan, kontuan hartu da abian jarrita dagoela MUGI BIRTUALA proiektua. Martxan jartzen diren unean, erabiltzaileek kargatzeko beste bide bat izango dute. Kasu horretan, esleitutako komisioa kudeatutako bolumena duten ondorengo tarteen arabera banatzen da, % 4ko + BEZ komisiotik abiatuta.
- Halaber, ordainketa pasabidea abian jartzea aurreikusten da, karga automatikoaren (autotopup) esperientzia hobetzeko eta cEMV bidezko ordainketa ahalbidetzeko. Zerbitzu hori kudeaketa gomendio baten bidez eskatu ahal izango dute partzuergoko kideek. Ordainketa pasabidearen kontratazioa ABANCA CORPORACIÓN BANCARIA SAri esleitu zaio, 36 hilabeteko iraupenarekin. 2023ko martxoaren 23an, % 1,6ko komisioarekin.

Oso kontuan izan behar da Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun Departamentuak ezarri zuela karga komisio horien BEZa kentzeari buruzko irizpidea, eta, 2017az geroztik, komisio horiek ez daukate BEZ kengarria; beraz, kostua nabarmen handitu zen aurreko urteekin alderatuta, ordutik hona islatu den bezala.

d) Erabiltzaileei arreta emateko zentroa:

MUGI sistemaren elementu erabakigarria da, bertatik zuzenean aritzen baita interakzioan erabiltzaileekin eta herritarrekin. Eskaintzen diren zerbitzuak aurrez aurre (Donostiako Easo kaleko egoitzan) edo urrutitik bideratzen dira (telefonoz, posta elektronikoz, sare sozialen bidez, WEB orritik edo mugikorrerako aplikaziotik).

GUREAK MARKETING SL enplegu bereziko zentroari esleitutako azken kontratua 2023ko irailaren 13an hasi zen gauzatzen, eta 24 hilabete iraungo du —urtebeteko bi luzapen egiteko aukerarekin—. Kontratuaren aurrekontua eta eskakizunak handitu egin dira. Izan ere, memoria honetan adierazi den bezala, izapideen kopuruak gora egin eta inoizko mailarik handiena jo du; aldi berean, telefonoz nahiz aurrez aurre artatutako kontsulten eta izapideen kopuruak ere errekorra hautsi du.

Halaber, aipatutako birtualizazioa sartzen den unean indartu egin beharko dela aurreikusten da.

2027rako, eta POCTEFA kofinantzaketarekin, beste kontratazio bat abiaraziko da TRANSFERMUGI mugaz gaindiko proiektu europarraren babesean; haren helburua izango da onlineko sarbidea hobetzea, hala mugaz gaindiko erabiltzaileena nola edozer jatorritako erabiltzaileena.

e) Kontrol integraleko zentroa

Kontratuaren xedea da Partzuergoaren titulartasuneko MUGI sistemaren kontrol zentro integralaren mantentze eta administrazio lanak gauzatzea da. Hauek dira jarduera nagusiak:

- Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzaren azpiegitura eta zerbitzariak administratzea.
- Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzan dauden sistema informatikoen eragiketak.
- Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzarako biltegiratutako informazioa ustiatzea.
- MUGI sistemaren aplikazioak mantentzea.

Kontrol zentro integrala kudeatzeko kontratua INDRA enpresari esleitu zitzaion 2020ko abenduaren 15ean, 620.000 euroko zenbatekoarekin eta 36 hilabeteko iraupenarekin. 2023ko abenduaren 15ean, kontratua beste 24 hilabetez luzatu zen. 2025eko uztailaren 21ean, berriz esleitu zitzaion INDRAri, 950.000 euroan eta 2 urteko epean, eta beste 3 urtez luzatzeko aukerarekin.

f) “Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzaren eta Renfe Viajeros Estatu Sozietatea SAren arteko hitzarmena, Renfe Viajerosek Donostiako aldirietako trenbideko bidaiarien garraio zerbitzu publikoetan Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzaren txartela erabili, ustiatu eta kudeatzeko”.

Gastu hori 4. kapituluari dagokio.

2019ko ekainean, Renfe Viajeros Estatu Sozietatea SA MUGI sisteman sartu zen, eta sistemaren txartelak eta tarifak onartu zituen Donostiako aldiriko sarean.

Aipatutako akordioak MUGI sistema integratua erabiltzen duten bidaiariengatik konpentsazioak ordaintzeko konpromisoa ezartzen zuen. Konpentsazio horiek kalkulatzeko, 2016ko diru sarrerak hartzen ziren erreferentziatzat, eta zuzenketa faktore batzuk aplikatzen ziren: KPIaren bilakaera, RENFEren berezko tarifak, eskainitako zerbitzuen kilometro kopurua eta COVID-19aren ondorioz eskariak izandako beherakadaren inpaktua.

Gerora sortutako inguruabarrengatik hitzarmenean egindako aldaketei beste bat gehitu zitzaien 2023an, 2025eko aurrekontuan eragina zuena. Aldaketa horren arrazoia tarifak murrizteko errege dekretuaren inpaktua izan zen, baita haren ondorioz argitaratutako ondorengo errege dekretuena eta ministro aginduena ere. RENFEk ezarri zuenez, tarifa integraziorako indarreko akordioa zuten agintaritzek ez zioten diru sarreren bermeari lotutako konpentsaziorik ordaindu beharko prezioen murrizketak indarrean jarraitu bitartean. Hala, partzuergoa osatzen duten administrazioek neurriak eragindako diru sarreren murrizketari aurre egiteko erabiliko zuten zenbateko hori.

Bada, azken 1/2025 Errege Lege-dekretuak salbuespen hori ezabatu zuen 2025eko uztailaren 1etik abendura bitarterako. 2025ari dagokion konpentsazioa 2026an ordaintzea legokiokeenez, urte horretako aurrekontuan konpentsazio horretarako zenbateko zenbatetsi bat jaso zen. Aurreikuspen hori 2027rako ere mantendu da.

Nabarmendu behar da errege lege-dekretuak ez duela argi zehazten konpentsazio horiek nola berreskuratu. Gaur egun, Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzak idazki bat bidali dio Garraioen eta Mugikortasun Jasangarriaren Ministerioari, hauxe azpimarratzeko: Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzak ez duela jaso inolako dirulaguntzarik Garraioen eta Mugikortasun Jasangarriaren Ministerioaren aldetik, Renferen aldiriko eta distantzia ertaineko zerbitzuetan tarifak murrizteko, RENFEren aldiriko zerbitzua EZ baita GGLAren zerbitzu bat, ezta errepide garraioa ere. Gogorarazten da, beraz, Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzak ez duela bere gain hartu beharko 1/2025 Errege Lege-dekretuaren ondoriozko diru sarreren galera.

Hori horrela, konpentsaziorako 1.200.000 euroko zenbatekoa aurreikusi da. Zenbateko hori estimazio hutsa da, eta, ziurgabetasuna eta eskura dagoen informazioa kontuan hartuta, nabarmen alda liteke.

Gainerako gastuen aurrekontuari dagokionez, honela banatzen dira erakundeak 2027rako ezarri dituen helburu espezifiko nagusiak eta horiek lortzeko behar den aurrekontua:

2.1.2.2 (c funtzioa) ITSen (garraio-sistema adimendunen) koordinazioa eta garapena

a) ***<u>Sistema zentralen garapen ebolutiboak eta MUGI BIRTUALERA egokitzeko lanak</u>***

Urtero bezala, Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzaren sistema zentralak etengabe hobetzeko eta MUGI sistemaren kudeaketara egokitzeko lanak egingo dira.

Aurreikuspenen arabera, 2027an lan horiek MUGI BIRTUALA sistema abian jartzean eta sendotzean oinarrituko dira.

b) ***<u>ITSen integrazioa eta elkarreragingarritasuna zabaltzea: Lurraldebus</u>***

Hiru lurraldeetako sistemen arteko elkarreragingarritasuna osatzeko, Gipuzkoako gainerako hiri garraioko operadoreek BAT eta BARIK txartelak irakurri eta haiekin komunikatu ahal izateko lanak egin behar dira.

DBUS salbuespena da, hiru txartelen arteko elkarreragingarritasuna ezarri zuen lehen operadore pilotua izan baitzen.

Garapen horiek zehaztu gabe daude oraindik.

Era berean, Euskadiko Garraio Agintaritzari eskatu zaio hel diezaiela elkarreragingarritasun hori mantentzeko eta eguneratzeko lanei, Bizkaiko eta Arabako operadoreak MUGIren bertsio birtuala irakurtzeko presta daitezen. Egokitzapen horiek ezinbestekoak dira elkarreragingarritasunari eusteko.

2.1.2.3 (d funtzioa) Erabiltzaileentzako komunikazioa eta informazioa

2015ean, MUGI sistemaren erabiltzaileekin eta, oro har, herritarrekin harremanetan jartzeko eredu berri bat ezartzen hasi zen, Gipuzkoako garraio publikoaren sistemaren erabilera sustatzeko. Komunikazioaren ikuspegi berriak parte hartzea, elkarreragina eta pertsonalizazioa ditu ardatz, eta garraio publikoaren erabilerak gipuzkoarren bizi kalitatea hobetzeko duen balioa nabarmendu nahi du.

Horretarako, Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzak zenbait komunikazio kanal garatu ditu urteotan, eta gaur egun webguneak, aplikazioak, kutxazain automatikoak, kioskoak, aurrez aurreko arreta, sare sozialak, posta elektroniko bidezko bidalketak eta SMS mezuak baliatzen ditu. Kanal horiek etengabe mantentzen eta hobetzen ditu.

Partzuergoak lan-ildo horri eutsi dio 2026an: funtzionalitate berriak eta eguneraketak gehitu ditu, eta, POCTEFAren baterako finantzaketari esker, adimen artifiziala komunikazioa hobetzeko erabiltzeko aukeretan sakondu du. 2027an, sendotu egingo dira hobekuntza horiek.

Halaber, estatutuetan jasotako jarduera ildo horren barruan, Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzak komunikazio planak, kanpainak eta ekintzak diseinatzen eta abian jartzen jarraituko du 2027an, Gipuzkoan garraio publikoaren erabilera sustatzeko. Horretarako, eskura dituen baliabide digital eta fisiko guztiak erabiliko ditu.

Azkenik, partida espezifiko bat aurreikusi da MUGI BIRTUALA proiektua abian jarri dela jakinarazteko: 150.000 euroko kanpaina bat abiaraziko du.

2.1.2.4 (a funtzioa) Garraio zerbitzuen eta azpiegituren plangintza egitea

Partzuergoak kudeatzen du MUGI sistema. Horrenbestez, MUGI txartelekin egindako baliozkotze bakoitzari buruzko informazio zehatza du, bai sisteman integratutako garraiobide eta garraio modalitate guztietan, bai txartela ordainbide gisa erabiltzen den gainerako zerbitzuetan. MUGI sisteman zona, tarifa eta deskontu berberak aplikatzen dira, baita doako aldaketetarako baldintza eta hilabete naturaleko deskontu progresibo berberak ere. Horren ondorioz, elkarri lotuta daude sisteman integratutako enpresa operadoreen tarifa bidezko diru sarrerak.

Partzuergoa osatzen duten administrazioek hura eratzeko ezarritako helburuekin bat etorriz, Partzuergoak Gipuzkoako garraio publikoaren modalitateen plangintza koordinatu eta aztertzeko lanak egiten ditu.

Plangintza horren azterketan sakontzeko eta, hala, garraio zerbitzu publikoaren eskaintza hobetzeko neurriak proposatu eta ezarri ahal izateko, garraio sarearen eta garraioaren plangintzaren arloko aholkularitza

espezializatuko zerbitzuaren mantentze lanak kontratatu zaizkio INGARTEK SAri. Kontratua 2023ko otsailaren 1ean hasi zen, eta lau urtez iraungo du.

2027an, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren PLANGINTZA INTEGRATUAREKIN jarraitu da, eta etengabe eguneratu da garraio publikoaren plangintza; horretarako, Partzuergoko erakundeetara joateaz gainera, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren plangintzan sartutako aldaketak ere monitorizatu dira, besteak beste.

2.1.2.5 (f funtzioa) Etorkizuneko arau esparrua: Garraio Erregelamendua

2015eko martxoaren 14an jarri zen indarrean Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzaren barruan dauden Gipuzkoako administrazioen eremuan bidaiariak errepidez garraiatzeko zerbitzu publiko erregularrak harmonizatzeko Erregelamendua. Erregelamenduaren helburua da modu bateratu eta homogeneoan arautzea Gipuzkoako garraio publiko erregularreko zerbitzuaren prestazioa.

Erregelamendua indarrean jartzeak eta haren jarraipen batzordea sortzeak aukera eman dute, besteak beste, irisgarritasun unibertsalarekin, desgaitasuna duten pertsonen eskubideekin eta genero ikuspegiarekin lotutako arazoak hautemateko eta agerian jartzeko.

Partzuergoak arlo horietan erakunde kideek gara ditzaketen ekintzak sustatu eta koordinatzen ditu, eta Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzaren berezko baliabideak erabiltzen ditu.

Era berean, Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzak kudeatzen ditu MUGI sistemaren erabilera baldintzak. Baldintza horietan zehazten dira MUGI txartelari aplikatu beharreko arau guztiak.

2025ean, erregelamendua landu eta aldatu egin da, eta laguntzaile bat doan eramateko eskubidea aitortu zaie Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politiketako Departamentuak emandako mendekotasun egoeraren egiaztagiria duten pertsona guztiei.

2.1.2.6 Genero ikuspegia eta berdintasuna

Azkenik, Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzak genero ikuspegia lantzen jarraituko du, bai barne kudeaketan, bai garraio publikoan, oro har. Ildo horretan, hobekuntzak proposatuko ditu, hala transbertsalak nola zuzenekoak. Testuinguru horretan, 2026an Berdintasun Batzordea sortzea bultzatu zen, MUGI zerbitzu integratu guztietan genero ikuspegia zaintzeko.

2.1.3 3. KAPITULUA: FINANTZA GASTUAK

Partzuergoak beharrezkotzat jotzen du aurrekontu gastua esleitzea, diruzaintzako zailtasunak direla-eta epe laburrera kreditu kontu bat erabiltzeak sor ditzakeen interesei aurre egiteko. Kontsignazio hori minimoa da.

2.1.4 4. KAPITULUA: TRANSFERENTZIA ETA DIRULAGUNTZA ARRUNTAK

Kapitulu honetan sartzen dira, batetik, Garraio Publikoaren Nazioarteko Elkarteari (UITP) eta Mugikortasun Klusterrari ordaindu beharreko hileko kuotak, eta, bestetik, Partzuergoaren ordezkaritza instituzionalari dagozkion gastuak.

Jarraian, besteak beste, Partzuergoak parte hartzen duen edo parte hartzera gonbidatu duten foro eta erakunde nagusiak aipatzen dira:

- Garraio Publikoaren Nazioarteko Elkartea (UITP).
- Metropoliko Mugikortasunaren Behatokia. Sustapen Ministerioa eta Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioa.
- Estatuko Garraio Agintaritzen eta Partzuergoen Mahaia.
- Debabarreneko Mugikortasun Mahaia.
- Oiartzualdeko Mugikortasunaren Mahaia.
- Espainiako ITS Batzordea.

Halaber, gutxieneko zenbateko batzuk aurreikusten dira irabazi asmorik gabeko erakundeei eman dakizkiekeen dirulaguntzei eta, erreklamaziorik izanez gero, familiei edo enpresei egin dakizkiekeen transferentzia arruntei aurre egiteko.

2.1.4.1 Operadoreentzako transferentzia eta dirulaguntza arruntak MUGI sisteman

Azkenik, 11. orrialdeko 2.1.2.1 atalaren g) puntuan («b eginkizuna). Tarifen antolamendua: MUGI Sistemaren kudeaketa») azaltzen denez, 1/2025 Errege Lege-dekretuak ezabatu egin zuen 2025eko uztailaren 1etik abendura bitartean RENFEri diru sarreren bermeagatik konpentsaziorik ez ordaintzeko salbuespena, eta indarrean jarraitzen du oraindik. Horrenbestez, 2026ari dagokion konpentsazioa 2027an ordaintzea legokiokeenez, aurrekontuak zenbateko zenbatetsi bat jasotzen du urte horretarako.

Nabarmendu behar da errege lege-dekretuak ez duela argi zehazten konpentsazio horiek nola berreskuratu. Gaur egun, Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzak idazki bat bidali dio Garraioen eta Mugikortasun Jasangarriaren Ministerioari, hauxe azpimarratzeko: Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzak ez duela jaso inolako dirulaguntzarik Garraioen eta Mugikortasun Jasangarriaren Ministerioaren aldetik, RENFEren aldiriko zerbitzua EZ baita GGLAren zerbitzu bat, ezta errepide garraioa ere. Gogorarazten da, beraz, Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzak ez duela bere gain hartu beharko 1/2025 Errege Lege-dekretuaren ondoriozko diru sarreren galera.

Hori horrela, konpentsaziorako 1.200.000 euroko zenbatekoa aurreikusi da. Zenbateko hori estimazio hutsa da, eta, ziurgabetasuna eta eskura dagoen informazioa kontuan hartuta, nabarmen alda liteke.

RENFEri emandako konpentsazioarekin batera, PASAIAKO txalupa motordunaren zerbitzuari dagokion konpentsazioa aurreikusi da, baita ZUMAIAKOARI dagokiona ere. Nabarmentzekoa da errege lege-dekretuak ez dituela babesten zerbitzu horiek, ez baitira lurreko garraioa. Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzak eskatu zuen sartzeko, baina ezezkoa jaso zuen. Konpentsazio horietarako 220..600 euroko zenbatekoa kalkulatu da.

2.1.5 6. KAPITULUA: INBERTSIO ERREALAK

Kapitulu honetan, batetik, gutxieneko zenbatekoa duten bi partida jasotzen dira (Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzaren eraikinen funtzionamendu operatiboari lotutako balizko inbertsioak eta izaera immaterialeko inbertsioak, marka eta jabetza intelektuala babesteko), eta, bestetik, MUGI BIRTUALA ezartzeko laguntza teknikoko zerbitzuaren kostua aurreikusten da (87.150 euro).

2.2 DIRU SARREREN EGOERA

Partzuergoaren aurrekontuek xehetasunez zehazten dituzte aurreikusitako diru sarrerak eta gastuak, baita partzuergoko erakundeen partaidetza kuotak ere.

2.2.1. 3. KAPITULUA: TASAK ETA BESTE DIRU SARRERA BATZUK

Estatutuen arabera, Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritza Partzuergoaren baliabide ekonomiko eta finantzarioak dira, besteak beste, ematen dituen zerbitzuen ordain gisa ezartzen diren tarifak, izan horiek tributuak, izan prezio publikoak, izan prezio pribatuak.

Ildo horretan, lehen diru-sarrera mota MUGI txartelen salmentatik dator.

Txartel horien salmentak bi abantaila dakartza Partzuergoaren kontuetarako. Batetik, txartelak erosteko gastua ez da osorik partzuergoko erakundeen ekarpenekin ordaintzen; txartelen salmentaren bidez ere finantzatzen da.

Bestalde, BEZa jasanarazteko betebeharrak BEZaren hiruhilekoko likidazioa egiteko aukera ematen du. Txartela 5 eurotan saltzen da (BEZa BARNE), hau da, 4,132 eurotan (BEZik gabe).

Gainera, kapitulu honetan sartzen dira eratutako gordailuak sortutako interesetatik datozen finantza sarrerak. Gordailuaren zenbatekoa 4.000.000 eurokoa da.

2.2.2. 4. KAPITULUA: EKARPEN ARRUNTAK

Ekarpen arruntak bi multzo nagusitan banatu dira, finantzatuko dituzten gastuen arabera.

Partzuergoaren ohiko funtzionamendu gastuak estatutuetan ezarritakoaren arabera finantzatuko dira.

Partzuergoaren funtzionamendurako behar diren ekarpenak, berriz, partzuergoko erakundeek ordainduko dituzte, Batzar Nagusian duten ordezkaritza ehunekoaren proportzioan.

